

Galtzaundi

Tolosaldeko Herri Aldizkaria

10/9/3 | 328

- 🌀 Ibarrrak eta lizarrak anaituta
- 🌀 Nairobitarra bidaia eskola martxan
- 🌀 Xahmaran
- 🌀 Irailak 11, Bonberenea Sutan
- 🌀 Ugaitz Mendizabal Astilleroko patroï gaztea

Autoikaskuntza,
euskara ikasteko
biderik
eraginkorrena



EZ ZAITZATELA NAHAS

DIESEL OPERAZIOA CITROËN-EN

HELBETE HONTAN, CITROËN C3 HDI GASOILAREN PREZIOAN,*

HELBETE HONTAN, CITROËN C4 HDI
12.500 € -TIK**

XSARA PICASSO HDI 13.850 € -TIK**

C4 SEDAN HDI 17.500 € -TIK**

ORAIN EROSITA EZ DUZU IRAILERARTE KUOTARIK ORDAINDUKO BIEZ-A IGO AURRETIK AFROBETXATU, ETA GAINERA, ARRISKU OROTARAKO ASEGURUA OPARI ****

CITROËN profeta TOTAL



IROVI, S.A. CITROËN KONTZESIONARIO OFIZIALA. INDUSTRIA GUNEA Z/G TEL: 943 65 18 42 ANOETA/TOLOSA

harria gresak

25 urte zure bainugela janzten Neurri era egindako bainugelatan espezializatuak

Zelaeta, 1 Beasain (Gipuzkoa) Tel. 943 885 466
Emeterio Arrese, 7 Tolosa (Gipuzkoa) Tel. 943 245 200
www.harriagresak.com - beto@harriagresak.com



aldama_tapia

aholkularitza

Foruen Etorbidea,7
20400_TOLOSA Gipuzkoa
Tel_943 650 375
Faxe_943 655 206
gtolosa@aldamatapia.com
www.aldamatapia.com



ZEUK AUKERATU

beturreko graduatuekin DOAN eguzkitako graduatuekin

eguzkitako beturreko graduatuekin 57€

graduotutako eguzkitako lenteak 35€


merkako eguzkitako beturreekokin DOAN eguzkitako beturreekokin

MULTIÓPTICAS
lehenengoa zerbitzu optikoetan

San Francisco, 23 • Tel. 943 69 84 70 • TOLOSA



nonzer



Erreportaia: Autoikaskuntza, lana bai, baina emaitzak ere bai

Eguneroko aurrez-aurreko ohiko saioez gain, euskara ikasteko bada beste alternatibarik: autoikaskuntza modulua. Tolosako Aitzol Udal Euskaltegiak sei urtetan eskaini du sistema hau. Egunero euskaltegira joan beharrik gabe, norberak etxetik egiten du lan programa informatiko baten eta unitate didaktikoen bidez. Bigarren hizkuntza ikasteko sistema eraginkorra da. Urtero urtero gora egiten duen matrikula kopuruak eta bertan matrikulatutako ikasleek lortzen dituzten emaitza bikainek frogatzen dute hori.

8-11. orrialdeak

« Lehen orain baino askoz borroka gehiago ikusten zen. Guardia Zibila noiznahi etortzen zen. Garai batean herrian bihurrikeriaren bat egiten zuenak kalea garbitu behar izaten zuen hurrengo egunean».

Elkarrizketa: Lukas Las

16-18. orrialdeak



Argitaratzailea: Galtzaundi Euskara Taldea.
Helbidea: Nafarroa etorbidea,
6-behea,
20400 Tolosa (Gipuzkoa)
Telefonia: 943 655 004
Faxe: 943 654 983
e-posta: erredakzioa@galtzaundi.com
Webgunea: www.galtzaundi.com
Koordinazioa: Leire Zubeldia.
Erredakzio taldea: Felix Aiestaran, Gorka Otaegi,
Amaia Goikoetxea Orbegozo.

Kolaboratzaileak: Joseba Antxustegietxarte, Txomin Garmendia, Garbiñe Biurrun, J. Agustin Arrieta, Antton Izagirre, Andoni Egia, Ibon Artola, Unai Igartua, Virginia Etxarri, Jone Otxoa-Aizpurua, Artubi elkarte, Bilgune Feminista, Amaia Etxetxipia, Jone Gorostazu, Iosu Izueta, Txarli Gesteira

Publizitatea: Angela Alamo
Banatzaileak: Olatz,
Juankar Arregi
Idazkaria: Edurne Mendinga
Maketazioa: Zigor Agirrezabala.
Diseinua: Zigor Agirrezabala
Azala: Galtzaundi
Inprimategia: Antza.
Tirada: 5.000 ale
Lege gordailua: SS-906/91
Frankeo Itundua: 37/94

GALTZAUNDI aldizkaria doan banatzen da Tolosaldeko 23 herri hauetako denda eta tabernetan: Abaltzisketa, Albitzur, Alegia, Alkiza, Alto, Amezketza, Anoeta, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidegoian, Elduain, Gaztelu, Hernalde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Lizartza, Orendain, Orexa, Tolosa.

Galtzaundi ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

TOLOSAKO UDALA

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

Aldizkari honek Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Turismo Sailaren, Gipuzkoako Foru Aldundiako Kultura eta Euskara Sailaren, Kutxa Fundazioaren, Tolosako Udalaren eta Tolosaldeko hainbat Udalen laguntza jasotzen du.

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
Hizkuntz Politikarako Sailburuordea
diruz lagundutako argitalpena



	Iritziaren leihoa: Txomin Garmendia eta Unai Igartua	4-5
	Normalizazioa: Hizkuntz eskubideei buruzko hirugarren erreportaia	6-7
	Eskualdeko albisteak: Ibarra eta Lizarra senidetuta	12-13
	Eskualdeko albisteak: Martxan da Nairobitarra bidai eskola	14-15
	Irakurlearen begietatik: Xahmaran, Jon Arretxe	19
	Kultura: Irailak 11, Bonberenea Sutan	20-21
	Kirol saltza: Ugaitz Mendizabal Astillerotik Kontxara begira	22-23

Mendiko edertasuna



Txomin Garmendia
Bertsolaria

Urtero, San Migel Goingerua agoztuaren bigarren idandean Igaratzara ekartzen dute bere santutegitik; jainera ikusgarrian gaiñera. Aurtengoa agoztuaren 8an izan zen. Urte askotan izandu naiz eta inguru artako edertasunez lillurturik bertso batzuk jarri nitun 2000. urtean "Ikusten dezu goizean..." doñuan kantatzeko. Ez det uste gaurkotasunik galdu dutenik:

Mendiko edertasuna,
pakea ta osasuna,
izadian oiartzuna.
Kalean diran ainbat galderak
an badute erantzuna,
bertako aberastasuna,
iñun berdiñik ez duna,
gure zorientasuna.

Gaua izan bada osgarbiz,
izarrez eta illargiz,
egun-senti arrigarritz.
Millaka izar itzali orduko,
eguzkia dator berriz,
mendizaleak izardiz,
zer litzake Euskalerriz,
mendirik ez baldin balitz?

Gaillur bat iritsitzean,
zotalan exeritzean,
gosariaren pozean.
Mendiak asko jarritzen gaitu
egarriz eta gosean,
pago zar bat saietsean,
txorien kantu ostean;
danok zorion utsean.

Leku au da, Pago-Mari,
bertan nai ainbat pagadi,
arkaizti eta belardi.
An eta emen bazka gozotan
konta ezin ainbat ardi,
tarteaz beor da zaldi,
bakoitza kontura bedi,
Igaratzara emendi.

Altxa-ta bidean ekin,
sasoi daukagu gurekin,
gosari orrek on egin.
Berealaxe artzai bat topo
zakur da makillarekin,
agur "egun on" batekin,
ta jarrai izketarekin;
naiz arrotzak alkarrekin.

Guk galderak egin ala,
erantzunak bereala,
ain zan otzan da apala,
makilla tente eta zakurra
bere ondoan zeukala,
jende txarra ere bazala,
mendian lapur zirala;
konturatuko giñala.

Nunnai utzi ondakiña,
ez da guaza atsegiña,
garbi zegona zikiña.
Al baldin bada etxerako artu
bestek lanez egiña,
pertsona txarraren griña,
ordi da beren dotriña;
lotsagarria da baiña.

Larrosak eta arantzak,
baditu gure baratzak,
eta berdin Igaratzak.
Aurreruntz ere jarrai bezate
mendiak eta artzantzak,
neguko egun garratzak,
poztu ditzala maiatzak;
udararen aberatsak.

Iritsiz Igaratzara,
exeri eta patxara,
ondorenen mezatarra.
Igande batez San Migel ere
ekartzen dute bertara,
agoztun bigarren da,
ez dakiñik baldin bada;
erromes joateko ara.

Igaratzako mezetan,
bat ez da bizi txantxetan,
baizik eta zeru-ametsetan.
Mendian dagon alaitasuna
bai ote dago bestetan?
Zarretan eta gaztetan,
askatasuna izketan;
zorionaren ustetan.

Lizar ondoan exeri,
itzal ederra da ori,
nun dago hainbeste zori?
Ekarrirako puskek zabaldu
erari eta janari,
ondorenean kantari,
danok jarri bertsolari;
trixturik ez da nabari.

Arratsaldea aurrera,
aurki eguzki sarrera,
asi bear goitik beera.
Gauz ona azkar bukatzen dala
aspaldiko esaera,
jendea etxe aldera,
arrigarri ez ote da?
Agurka mendia bera.

Bukatu dira oporrak

Uztaila eta abuztuari so eginez, futbolariek ere ezin dezakeen krisiak hor jarraitzen du, europar indar eskuindarrek eta enpresek gidatutako aldaketak gizar-te xumeak pairatuz, eta argi izpiak nonahi erakutsi nahi dituzten arren, lehenago edo beranduago eroriko den bizi-modua bultzatuz.

Baina baditugu, gertuago, beste pare bat kontu aipatu nahiko nituzkenak. Alde batetik murgildurik garen ilusiozko, eta beldurrezko prozesua. Uda honetan saiatu naiz jendearekin hitz egiten, eta era guztietako iritziak jaso ditut: azkarregi, motelegi, batzuekin kontatuz, besteekin hitz egin gabe, tranpa, itxaropena, orain da unea, orain ez da unea, gizar-teak zein erantzukizun duen, zer lortu behar den...

Bi pertsona ez dira haserretzen batek nahi ez badu, era berean, bi pertsona ez dira adiskidetzen batek nahi ez badu!!

Herriak indarra duela deritzot, baina gobernu espainolaren aldetik benetako bakerako eta batez ere konponbiderako jarrerarik ez badago jai daukagu. Lagun batek zioen bezela, "berriro ere pareta berdinarean aurka joko dugu".

Prozesua luzea izango da, prozesuak luzea izan behar du, baina konponbiderako konpromisoak finkoa izan behar du, bes-tela, jai dago.

Udako eta urteko beste puntua, Euskal Herriko hiri eta herrietako jaien antolaketadugu. Udaletan, geroz eta gehiago kanpora begiratuz eginiko festak inposatzen dizkigute, urteetan zehar Euskal Herriko jaien eredu izan dena alde batera utziz, eta beraiei komeni zaizkien ikuskizunak antolatuz, herriaren nahia eta gogoia alde batera utziaz.

Jaiak herriarenak dira, ez udalena, eta herriak nahi dituen moduan antolatzen ditu, ez udalak nahi dituen moduan. Ziur naiz, Donostiako udalak suzko erruberak (Su artifizialak) botatzen dituzten enpresetako bati ordaindu zaionaren laurdenaren herenarekin piratek jai guztietako aurrekontua izango luketela, eta soberan gainera! Agian ikuspegi ezberdian dira. Bilbo total free, Donosti, Iruñea, European flower power!! Come here, and give me your money!!

Udalek beraien etxea dotore dotore atontzen dute, bixitariak etortzean "ooh! Zein polita" esan dezaten. Herriarrak, bitartean, jaietatik kanpo geratzen dira parte hartzeko inolako aukerarik gabe. Eskerrak Euskal Herrian etxeko sua pizturik mantentzeko lanean dabilen jendea dagoela, oztopoak oztopo, etxe horretan bizi den jendeak bere jaietan parte har dezaten, ongi pasa dezaten, herriko jaiak horixe, herriko jaiak izan behar du, deses-



Unai Igartua
Eneko Aritzaren lagunak taldeko kidea

Bukatu dira oporrak!! Berriro ere lanean hastea, egunerokotasunean sartzea, erretzeaz uztea, eguraldia kaxkartzea, iluntasunak gure begiak tristetzea, egia esan... nagikeri earra ematen dit!! Baina beste alde batetik, kirola tope egitea, proiektu, ilusio amets berriak piztea... Gogoia daukat!! Badakit laneko lehen ordu laurden igaro, eta udako pasartetatik denbora pasa dela irudituko zaidala, lehen egunean, ametsetako lainotik lur hartuko bagenu bezala.

perantea sarri, ziur ez naizela gai honetaz hitz egiteko pertsonarik egokiena, baina pozten naiz jende honek duen indar eta gogoia ikusteaz.

Lan honen ondorioz politika horrek huts egiten du, ikusi besterik ez dago Donostiako piratek duten eragina, Bilboko konpartsen indarra, Iruñeako planteak, Bartolaren mugimendua, Alegi, Anoeta eta hainbat herritako biz-

taleen herriko jaietan parte hartzeko gogoia.

Bukatu dira oporrak, eta lanean hasi beharko. Baina laster lur hartuko dugu, ti-ta batean jaitziko gara lainotik eta eguneroko gaiek beteko dute gure burua. Zorionez, edo desguzaz.

Zuri berriz, Leire, zorterik hoberena zure proiektu berrietan, plazer bat izan da zurekin lan egitea. Laster arte!

j u g u e t

Irakurle taldea
iraileko tertulia:
Eguna: irailak 9
Ordua: 19:30
Lekua: Tolosako Kultur Etxea (1. solairua)
Irakurri beharreko liburua:
"Bilbao-New York-Bilbao"
Kirmen Uribe bertan izango da

Hara, zergatik ez euskaraz? (III)

Zenbat aldiz gertatu zaizu saltoki batera joan eta ez zarela ausartu euskaraz egiten? Saltokiko erro-tuluak gaztelaniaz zeuden, etxera bidalitako propaganda ere bai... Ze eskubide daukat saltokietan tratua euskaraz eman diezadaten? Zer dio legeak horri buruz?

Imanol Haro,
UEMAko hizkuntz normalizatzailea



Aurreko aleetan, hizkuntz eskubideak zer diren eta euskaldunok osasungintzan ditugun hizkuntz eskubideak izan ditugu hizpide. Gaurkoan, saltokietan eta merkataritza establezimendu handietan hizkuntz eskubideak zertan diren ikusiko dugu.

Zer hizkuntz eskubide ditugu saltokietan?

Kontsumitzaile eta erabiltzaileei dagozkien eskubideak arautzeko, Euskal Autonomia Erkidegoan Kontsumitzaileen eta Erabiltzaileen Estatutua dago indarrean. Bertan, zer-nolako eskubideak ditugun zehaztuta dago, eta hizkuntzei buruzko ondasan eta zerbitzuei buruzko informazioa euskaraz nahiz gaztelaniaz jasotzeko eskubidea dugu, eta, bestetik, enpresek eta establezimenduen ofizialak diren bi hizkuntzetako edozein erabiltzeko eskubidea dugu.

Hori garatzeko, 123/2008 Dekretua, Kontsumitzaileen eta Erabiltzaileen Hizkuntza Eskubideei buruzkoa, jarri zuten indarrean -Euskal Herriko gainerako herrialdeetan, ez dute halakorik-. Dekretuaren

bidez, Jaurlaritzak hizkuntzarekin lotutako derrigortasun batzuk ezarri zituen enpresa jakin batzuei (establezimendu handiei, kreditu erakundeei, merkataritza establezimendu kolektiboek...), udalerrri jakin batzuetan (gutxienez biztanleak %33 elebidunak zituzten udalerrietan eta EAEko hiru hiriburuetan).

Legezko oinarri horiekin, beraz, euskaldunak bazeukan hizkuntz kontuengatik erreklamazioak bideratzea, baina, praktikan, bide hori erabat indargabetuta zegoen, administrazioak ez ziolako enpresari inolako zigorrak ezartzen. Beraz, gehienetan, enpresek bere horretan mantentzen zituzten euskararen eta euskaldunen aurkako jarduerak. Dekretua indargabetuta egonagatik ere, Jaurlaritza berriak dekretuaren puntu batzuk aldatu egin ditu aurrean, dekretua edukiz hustu eta ia erabat baliogabetzeraino.

Baina, zer gertatzen da hori betetzen ez dutenean?

Horrek guztiak zer esan nahi du praktikan? Euskaldunak eskubidea eduki badu saltokietan eta merkataritza establezimendu handietan euskara

erabiltzeko eta dendariekiko ahozko nahiz idatzizko tratua guztia euskaraz egiteko; baina, eskubide hori urratzen zaionean, ez dago legezko biderik enpresa horri zigor bat jar diezaioten, Katalunian ez bezala. Izan ere, Katalunian establezimendu bakoitzak araututa dauka katalanarekin nola

jokatu behar duen, eta, administrazioak arauak betetzen ez baditu, isuna jartzen dio.

Nolanahi ere, aurreko batean azaldu bezala, legezko urraketarik ez egoteak ez du esan nahi hizkuntza eskubideen urraketarik ez egotea. Hartara, urraketen aurrean, komeni da jarrera aktiboa hartzea eta ger-

tatutakoa hizkuntz eskubideen defentsan ari diren erakundeei jakinaraztea. Hartara, zure kasua Hizkuntz Eskubideen Behatokia (902194332) edo Elebidera (012) bidera deza-kezu.

Eta Tolosaldean, zer?

Eskualdean, ez da saltoki handiekin eta antzeko establezimenduekin lanketa espezifikorik egin azken urteetan. Nolanahi ere, Udalerrri Euskaldunen Mankomunitateak eta Galtzaundik Tolosaldeko herrietako etxetara iristen zen propaganda aztertu, eta euskararen erabilera neurtu zuten 2009. urtean, eta, tartean, mota askotako enpresak. Emaizta kuantitatiboak eta

kualitatiboak etsigarriak izan ziren. Kopuruei dagokionez, propaganda agirien %47 gaztelaniaz iristen da, eta euskaraz %2 baino ez. Legezko irakurketari dagokionez, gaztelaniazko propagandaren aurrean euskaldunak agiriak euskaraz jaso ahal izateko duen legezko bidea hutsaren hurrena dela ondorioztatu zuten egitasmoaren sustatzaileek.



BENTA ALDEA
JATETXEA

TEL.: 943 654 079
ANOETA
-TOLOSA BIDEAN

SANZ
arraindegia

Tel.: 686 98 21 74
943 65 17 85

Nafarroa etorbidea,
7 behea
20400 Tolosa

HALCON
BIDAIAK

Bidaiarik erakargarrienak

Korreo kalea, 5 - TOLOSA | Tel.: 943 674 566 | Faxe: 943 674 113



errrotatxo okindegia

Andia kalea, 3 Amaro, 9-A
Tel.: 943 655 492 Tel.: 943 671 038

Autoikaskuntza lana bai, baina emaitzak ere bai


Eguneroko aurrez-aurreko ohiko saioez gain, euskara ikasteko bada beste alternatibarik: autoikaskuntza modulua. Tolosako Aitzol Udal Euskaltegiak sei urtetan eskaini du sistema hau. Egunero euskaltegira joan beharrik gabe, norberak etxetik egiten du lan programa informatiko baten eta unitate didaktikoen bidez. Bigarren hizkuntza ikasteko sistema eraginkorra da. Urtero urtero gora egiten duen matrikula kopuruak eta bertan matrikulatutako ikasleek lortzen dituzten emaitza bikainek frogatzen dute hori. Aitzol Udal Euskaltegiko arduradunek, bildutako emaitzok mahai gainean jarrita, autoikaskuntzak eskaintzen dituen abantailez baliatzeraz gonbidatu nahi dituzte euskaldungaiak. Irailaren 1etik 17ra luzatuko da matrikulazio epea.

Leire Zubeldia

Abiatzean dagoen hau autoikaskuntza modulua zarpigarren ikasturtea izango da Euskal Herriko Udal Euskaltegien. Baina Aitzol Udal Euskaltegian lehenagotik hasi ziren norbere kasa euskara ikasteko zeuden aukerak lantzen. Mikel Uz kundun euskaltegiko zuzendariak 12 urtez atzera egin du: "Guk autoikaskuntza sistema proposatu genuenean HABEK ez zuen honen beharrik

ikusten. Aitzol-en ordea ikusten genuen behar hori bazetorrela, eta zenbait euskaltegi bere kasa hasi ginen alternatiba hau lantzen", azaldu du. Eta behar hori iritsi zen. Handik bost urtera HABEK martxan jarri zuen bere udal euskaltegi guztietan autoikaskuntza modulua, eta Tolosako euskaltegiak ere bere egin zuen eskaintza hori. Baina HABEren autoikaskuntza erdua eta Aitzolena ez zetozen

bat. "Beraien modulua aplikazio informatiko batetara murrizten zen; Boga programara zehazki. Gainera, programa hori hankamotz zegoen hasieran. Iruditzen zitzaigun ikasleak zerbait gehiago behar zuela". Boga programa ikaskuntza prozesuaren oinarri izan beharrean, osagarri bihurtu zuten Aitzol-ekoek, eta programa honekin batera beste hiru hanka jarri zizkioten mahaiari: unitate di-



daktikoak, mintza saioak eta tutoretza saioak. Gaur, emaitza bikainak ematen dituen sistemen oinarriak dira horiek. "HABEK ez zuen gure autoikaskuntza modulu onartu. Orduan udaletxera jo genuen. Orduko euskara zinegotziak eta euskara batzorde buruak begi onez ikusi zuten egiten genuen eskaintza, eta udalak

leak Boga programaren bidez zenbait ariketa egiten dituzten bere etxetik edo hala nahi izanez gero euskaltegian bertan. Unitate didaktikoa ere lantzen du. Unitate honetan aurrera egin ahala, egindako guztia irakasleak euskaltegian duen kultura batean uzten joaten da. Era berean, ikasle bakoitzak Boga programan egiten duena gain-

lantzeko aukera izaten duela irakaslearen feedback-a. Oso hotza da ordenagailu baten aurrean egiten den lanarekin bakarrik geratzea. Ez da batere motibagarria", azpimarratu du Martxeli Sagastume euskaltegiko idazkari akademikoak, "ikasle askok aurrez aurreko saio gehiago eskatzen dituzte;

egitea nahiago duzula? Edo afaldu osteko gaueko orduak baliatzen dituzula horretarako? Ez dago arazorik, baldin eta irakaslearen kutxatxoan lantzeko materiala uzten joaten bazara". Modulu bera ere ikasle bakoitzaren beharretara moldatu daiteke. Martxelik azaldu duenez, "batzuk ordu gehiago behar izaten dituzte Boga pro-

bakoitza bost ordutan egiteko pentsatuta dago, baina ikasleek denbora bikoitza behar izaten dute atazak burutzeko. Hamabostean behin 10 orduko lana planteatzen da. Bada, beraiek 20 ordu ematen dituzte, aurrez-aurreko saioetara etortzen diren ikasleak baino gehiago". Horra hor arrakastaren gakoa: dedikazioa. "Horrenbeste denbora eta ahalegin eskaintza lortzen dituzte ikasleek horren emaitza onak. Gainera bakarrik egiten dute lan. Soilik hamabostean behin izaten dute irakaslearekin egoteko aukera, eta denbora horretan sortzen zaizkien arazoak euren kasa konpontzera ohitzen dira".

Ikasleak eta emaitzak, gora eta gora

Nahiz eta disziplina handia eskatu, nahiz eta unean bertan

zalantzak argitzeko aukerarik ez izan, gero eta gehiago dira autoikaskuntza aukeratzeko dutenak. Azken ikasturtean 120 ikasle izan zituzten. Irakasle bakoitzak 34 ikasleekin egiten du lan. Ikasle guztiei behar bezalako jarraipena egiteko moduko kopurua da hau. Hori frogatuztat ematen dute autoikaskuntza modulu probatu eta hurrengo ikasturtean ostera ere matrikulatzen direnek. "Ikasleak jakitun dira sistema gogorra dela, ahalegin pertsonal handia eskatzen duela. Baina hori guztia egiteko prest agertzen dira", adierazi dute Sagastume eta Uzkudunek. Bertan matrikulatutako ikasleek lortutako emaitzak izango dira agian ikasleak modulu honetan izena ematera motibatzen dituztenak. Ondoko tauletan

dituzte, urtez urte, autoikaskuntzako ikasleek bildutako emaitzak. "Datu hauek euskaltegitik kanpo egiten diren azterketenak dira. Kanpo ebaluazioa deitzen diogu honi. Irakasleok ez dugu kalifikazio horretan esku hartzen; horregatik, objektiboak direla esaten dugu". Euskara ikasteko bide honen eraginikortasunaz jabetuta, Aitzol Udal Euskaltegiak autoikaskuntzara hurbiltzeko gonbita luzatu die euskara ikasi nahi dutenei. "Ez da ikasleen hautaketarik egiten. Matrikulatzen diren ikasle guztiak hartzen ditugu, dagoen eskariaren arabera moldatzen baitugu euskaltegiko lan taldea". Matrikulatzeko epea irailaren 1ean zabaldu zen, eta irailaren 17ra arte luzatuko da.



Boga programa, unitate didaktikoak, mintza saioak eta tutoretzak osatzen dute autoikaskuntza programa.

bi irakasle liberatu zituen materialgintzan jarduteko". Unitate didaktikoak sortu ahala erabiltzen joan ziren. Horrela, gaur arte. Orain, lehenengo urratsetik hasi eta hirugarren mailaraino unitate didaktiko ugari dituzte sortuta.

Malgua baina gogorra

Erraza da moduluaren funtzionamendua ulertzea: ikas-

begiratzeko joaten da irakaslea. Horrela, hamabostean behin egiten den tutoretza saioan, irakasleak feedback-a ematen dio ikasleari; alegia, egindako lana zuzendu, irakaslearen zalantzak argitu eta hurrengo bi astetarako lanak ematen dizkie. Prozesu guzti honi, astean behin egiten den ordu beteko mintza saioa gehitu behar zaio, azken honetaz, ikasleak, euskara ahoz ere

asteen saio bat edo bi egitea adibidez. Guk uste dugu etorkitza hor dagoela, autoikaskuntza konbinatuan", jarraitu du. Baina oraingoz sistema honek funtzionatzen du eta hainbat abantaila eskaintzen dizkie ikasle eta irakasleei: "abantaila nagusia irakasleak nahi duen eran administratu dezakeela da. Asteen zehar lanpetuta ibiltzen zarela eta, dena asteburuan

graman eta gutxiago unitate didaktikoak lantzen; beste batzuen kasuan berriz alderantziz gerta daiteke".

Malgua bai, baina horrek ez du esan nahi arina denik. Gogotik egin behar da lan, norberak egin behar du gainera, eta horrek disziplina eskatzen dio ikasleari. Gutxi gorabehera egunean bi orduz jarduteko lana egoten da. "Unitate didaktiko

Autoikaskuntzako ikasleen emaitzak kanpo ebaluazioaren arabera

Ikasturtea	1. maila	2. maila	3. maila/EGA
2006-07	Gainditu: 7 (%87.5) Suspenditu: 1 (%12.5)	Gainditu: 8 (%66.6) Suspenditu: 4 (%33.4)	Gainditu: 3 (%37.5) Suspenditu: 5 (%62.5)
2007-08	Gainditu: 7 (%70) Suspenditu: 3 (%30)	Gainditu: 6 (%66.7) Suspenditu: 3 (%33.3)	Gainditu: 2 (%25) Suspenditu: 6 (%75)
2008-09	Gainditu: 5 (%55.5) Suspenditu: 4 (%44.5)	Gainditu: 13 (%76.5) Suspenditu: 4 (%23.5)	Gainditu: 12 (52.1) Suspenditu: 11 (%47.9)

Xirimiri
Txokolategia

Gosariak eta meriendak

Tel.: 943 675 223
Errementari kalea, 40 • TOLOSA

ELUSTONDO
ELEKTRIZITATEA

Argi lanak
Iluminazioa
Antenak
lurre, 4 (Mustad)
943 672 300
Amaroz, 21.
943 675 513
20400 TOLOSA

Zumardi

SEGURAS
BILBAO



Aholkularitza integrala

Laskurain, 8-behea
TOLOSA
Tel.: 943 651 877

Martin
Eceizabarrena

Instalazio
erreforma
Konponketak

Igaralde, 11 - Tolosa
Tel.: 943 672 445
Mobila: 608 774 822

J. San Sebastian
MARISKO ETA ARRAINAK



Foruen etorbidea, 5 • TOLOSA
Tel.: 943 653 528 / 943 682 141



Irailaren 18an Lizarran ospatuko da Euskal Herria eguna

Ibarra eta Lizarrako herrien eta herritarren senidetzea

lazko urrian Ibarra ospatu zen lehen aldiz Ibarra eta Lizarraren arteko senidetze eguna. Egitasmoa gauzatu ahal izateko herriko kultur eta kirol talde bakoitzeko ordezkariak osaturiko talde eragilea osatu zen: Sendi Ekintza, Alurr Dantza Taldea, Haitzetan Raju Mendi Elkartea, Ibarra Gazte Asanblada, Subegi, Eneko Aritza, Denak Areto Futbola, Dultzaineroak, Musika Taldeak, Bartola eta Trikitixa Taldea dira kide. Urtean zehar, talde hauetako bakoitzak Lizarrako antzeko taldeko kideekin harremanetan egon dira. Irailaren 18an izango da Euskal Herriaren Eguna Lizarran eta bertan izango dira ibartarrak, iaz hasitako egitasmoari jarraipena emanaz. Guzti honetaz hitz egiteko Josu Ozaitarekin bildu da Galtzaundi.

Felix Aiestaran

Nola sortu ziren Ibarra eta Lizarraren arteko senidetze jardunaldi hauek?

Ibarra Bai Euskal Herriari taldetik sortu zen ideia eta Ibarra talde desberdin guztiei proposatu zitzaizkien bertan parte hartzea. Denok batera, urriaren hasieran Ibarra hartu genituen Lizarrarak.

Zer moduzko eguna izan zen?

Hirurogei lagun etorri ziren autobusez. Alurrek ongi etorriko dantza egin zieten eta

hortik aurrea egun luzea izan zen: Sendi Ekintzan hamaiketakoak, ume jolasak, kalejira, Poto Txotx bertso taldekoen laguntzaz egindako poteoa, senidetze ekitaldia, bazkaria eta ondorengo kontzertuarekin festa gauera arte luzatu zen. Balantze ona egin genuen, hasiera guztietan izaten diren zailtasunak, jendea erakartzea esaterako, lortu gainditu ge-

“Lizarra eta Ibarra senidetuko diren hurrengo herria Ziburu izango da eta ondoren Bizkaiko Algorta etorriko da”

genuen Nafarroako ordezkari gisa eta horrelaxe aukeratu genuen Lizarra. Beraiek ere



laz Lizarrarak izan ziren Ibarra, aurten Ibarraok izango dira Lizarran.

nituelako. Lizarrakoak ez genituela ezagutzen eta, hasieran gerturatzea kosta bazitzaigun ere, azkenerako giro ederra izan genuen. Bazkarian ere, herri bakoitzeko talde bereko jendea parez pare jartzen saiatu ginen, dantza taldekoak dantza taldekoekin eta horrela.

Zer dela eta aukeratu zenuten Lizarra?

Bere errealitatea ezagutze-ko hegoaldeko herri bat nahi

ilusioz hartu zuten proposamena. Gustura ari gara elkarlanean.

Zeintzuk zabilzate antolaketa lanetan?

Herri bakoitzean talde motorra dago, eta bertan, talde bakoitzeko bi ordezkari daude. Hiru hilabete behin elkartzen gara eta orain irailaren 18an Lizarran izango den Euskal Herriaren Eguna antolatzen gabiltza burubelari.

Urtean zehar Sendi Ekintzaok aritu dira Lizarrakoekin, Eneko Aritzakoek bere filma eskaini zuten hango AEKn bildutako berrogei laguni, hango dantzariak ere izan ziren hemen Gazte Festetan, Gaztetxeok ere izan ziren bertan eta Poto Txotxeok bere saioa ere egin zuten. Horrelaxe, talde guztiek urtean zehar ekitaldiak eginaz, harremanak estutzeko asmoa dute.

Zein da helburua?

Bi herrietako bizilagunek elkar ezagutzea eta Euskal Herria izan badela aldarrikatzea. Bide eraginkorra da. Lizarran ere jende abertzale ugari dagoela ikusi dugu.

Zein desberdintasuna dago herrien arteko ohiko senidetzeetatik?

Ohiko senidetzeak nahikoa sinbolikoak izaten dira, herritarren arteko harremana ez da lortzen. Gure senidetzeak ez du izan nahi egun bateko keinua, urtean zehar jarraipena izango duen elkarlana baizik.

Noraino iritsi nahi duzue?

Talde guztiak abian jarri eta Lizarrarekin harremana sendotuta dagoenean, beste sei probintzietara zabaltzea nahi dugu egitasmoa. Lizarra eta Ibarra senidetuko diren hurrengo herria Ziburu izango da eta ondoren Bizkaiko Algorta etorriko da.

Alde handia dago Lizarra eta Ibarren artean... Zer ematen dio batak besteari?

Ondo aztertuta ez dago horrenbesteko alde. Lizarrako AEKkoak etorri zirenean adibidez, euskaraz hitz egiteko aukera izan zuten, han ez bezala. Hala ere, Lizarra uste dugun baino euskaldunagoa da.

Aurtengorako zein asmo dituzue?

Aurtengo Euskal Herria Eguna irailaren 18an izango da Lizarran. Egitaraua adostu genuen: bertako gaztetxetik abiatuta, gaiteroekin Lizarra zeharkatu, hango joaldunekin kalejira ibili, sokatira erakustaldia, senidetze ekitaldia, txaranga elektronikoa eta beste hainbat gauza egongo dira. Taldeen arteko harremanaren bidez antolatu da hau dena, baina herritar guztiei zabaltzea nahi zaie partaidetza. Egun hau beraie festa eguntzat hartzea nahiko genuke, baita jende helduak ere jende helduak ere, ez baita gazteen gauza bakarrik.

Urtean zehar jarraipena emateko biderik ba al dago?

Behin hasierako harremana sendotuta, gero eta naturalagoa da. Talde bakoitzak bere egitasmoak egiteaz gain, irailaren 18rako prestaketarako joan etorriak eginaz lan giro ona sortzen da. Kamisetak atera ditugu. Ibarra eta Lizarrako jendea twenty eta face book-en gaude. Gogo biziaz gaude... Ea bi autobus betetzen ditugun!



losu iztuetak eta Ander Izagirrek, zenbait adiskideren laguntzarekin bidaia eskola sortu dute

Bidaiatu lekutik mugitu gabe

Tolosako suhiltzaileen egoitza paretik autoz igarotzean, errepidearen albo batera dagoen aparkalekura begiratu eta kolore biziz margotutako autobus bat ikusiko zuen zuetariko askok; eta autobus horrek horrenbeste denbora hor zer egiten duen galdetu ere bai zenbaitek.

Ekainean jakin genuen erantzuna: Nairobiarra bidaia eskola da; lekutik mugitu gabe bidaiatzeko aukera emango duen gunea, bidaia ez baita lekuz mugitzea soilik. Irailean hasiko dira autobusean lehenengo ekintzak egiten.

Leire Zubeldia



Autobusaren atzeko atetik sartu, zazpi eskailera maila igo eta ibilgailuaren atzekaldean egokitutako areto txiki moduko bat ikusi genuen lehenbizi;

albo banatan banku luze batzuk ditu, ikusentzuleentzat, eta erdian hizlariaren pulpitoa, kanpineko bi mahairekin ongi definitua. Bertan eseri zen losu iztueta inguruan bildu ginen kazetarioi azalpena emateko. "Pantaila moduko bat jartzen dugu aurrean, eta generadore batekin argazkiak proiektatu daitezke. Dagoeneko zenbait saio egin ditugu. Besteak beste, Zigor Aldama eta Fernando Rojo egon dira". Liburutegi txiki bat ere badago, erdi-betetako apalategietan gai ezberdinei buruzko liburu eta aldizkariak dituela. Hortik aurrealdeko kristaleraino lotarako literak daude, nola goian hala beheko solairuan ere. Ontziak garbitzeko arraskatxo bat ere ikusi dugu. Eta komuna ez da falta, noski. "20 lagunek lasai lo egiteko moduko tokia dago", jakinarazi zuen. Autobusak gidariaren lekua eta gurpilak mantentzen ditu, baina ez dute lekutik mugitzeko asmorik. "Bidaia lekuz aldatzearekin lotzen dugu beti. Lehenengo munduan bidaia oporren sinonimoa da ia. Baina munduan bidaia gehienak gogoz-kontra egiten dira, hondamendi natural edo politiko batetik ihes egiteko. Azken finean arazoez ekartzen dute bidaia. Bidaiatzea arazoak konpontzea ere bada guretzat. Autobusean mugitu gabe bidaiatuko dugu, egunerokotasunean sortzen zaizkigun arazoak konpontzen ikasiz".

Esan liteke, Nairobiarra bidaia eskola ere arazo baten ondorioz iritsi dela paradero honetara: 2009an Nairobiarra autobusaren egitasmo berri bat martxan jartzea erabaki zuten losu iztueta eta Lander Izagirrek. Murtzian bi pisuko autobusa erosi eta Euskal Herrian zehar ibilbide tematikoak egitea zen funtsean euren asmoa. "Baina autobusa egokitzen hasi ginen hainbat arazorekin egin genuen topo: arazo mekaniakoak, omologazioari zegozkionak, aseguruarenak. Funtsean, arazoa ekonomikoa zen, eta konturatu ginen, oztopo guzti horiek proiektua ito egiten zutelara. Orduan, gauza ibiltari bat egin ordez, autobusa leku batean utzi eta bertan aktibitatea sortzea erabaki zuten. "Apar-kaleku hau egokia iruditzen zitzaigun, eta Tolosak ere badu bidaiarekin halako lotura bat. Udalarari gure autobusa bertan aparkatzeko eskatu eta hala iritsi ginen hona". Arazoa konponduta.

Asmo ugari leku bakar batean

Bidaiaren bat egin duen jendearen hitzaldiak zein diaporama saioak egin daitezke; edo nonbaitera bidaiatzeko asmoa duen jendearekin bidaia behar bezala prestatzen ikasteko tailerrak; ordu beteko hitzaldia, egun bateko jardunaldia, aste beteko ikastaroa edota asteburu pasak egiteko aukera ematen du autobusak. Ekintzen gaiak

aipatzearen, bidaia baten kronikatik hasi, Euskal Herriko geologiari buruzko jardunaldietatik pasa eta arabieraz hitz egiteko asteburuko topaketa bat izateraino iritsi daitezke. Baina gazte-txoengan arreta berezia jarriko dutela jakinarazi zuen Iztuetak. "Bada kezkatzen gaituen gauza bat: gaztetxoak telefono mugikor batekin gauza ikaragarriak egiteko gai dira, baina gosez dagoen neska edo mutiko bati esparrago lata bat eta "abrelatas manual" bat eman eta ez daki nondik hasi". Nairobiarraren 25 urteko historian, gauza gutxi erekin gauza asko egin daitezkeela ikasi dute: "munduko leku askotan kubieta bat eta alanbre puxka batekin larrialdi batetik ateratzeko gai dira; al-diz, hemengo haur bati kubieta bat eta partxe mordoa eman eta ziurrenik ez du jakingo zer egin". Egunerokotasunean sortzen diren arazo horiei aurre egiten erakutsi nahi diete gazteei; egunerokotasunean moldatzen, dagoenarekin bizirautean.

Ekintzen programazio zehatzik ez daukate. Hori bai, inguruko ikastetxeekin harremanetan jartzeko asmoa daukate aipatutako ikasgaietara forma emate aldera. "Nairobiarra bidaia eskola egiteko lagun gutxi batzuk dirua jarri dute, beste batzuk denbora eta ahalegina, eta askok ilusioa eta animoa. Gutariko bakoitzak bere ogibidea du, eta autobus

honetan xahutuko ditugu ziurrenik gure ogibideak uzten dugun denbora libre eta xoxak. Beraz, ez dugu ekintzen maiztasunen inguruko konpromisorik hartu nahi". Prensaren bidez jakinaraziko dute bertan antolatzen den ekintza bakoitza. Muga bakarra espazioa da. 20-24 lagun ingururentzako tokia besterik ez dago. "Jende askoren intereseko ekintza

bat suertatzen denean, kultur etxera jo dezakegu, orain arte egin dugun bezala". Beraiek proposamena egin dezaketen bezala, jendeak bidaia eskolari ere proposatu diezaiokeela ere ohartarazi dute. Ah! Eta hemendik zehar dabilzan bidaiarietako aterpea ere izan daiteke. Era batera edo besterik, gauzak konpartitzeko espazioa izango da autobusa. ☺



losu Iztueta eta Ander Izagirre arduratuko dira bidai eskolaren martxaz.

ZALBIDE
Tolare Sagardotegia

Haragiak eta arrainak parrilan.
Ostirala, larunbata eta igande
eguerditan irekita, iluntzetan
egunero.

Zalbide baserria - Abaltzisketa
Tel: 943 652 176

SANTAMARIA
Ortopedia

- Garabi eta aulki elektrikoaren erakusketa.
- Kirola egiteko ortopedia sail berria.
- Osakidetzarekin hitzarmena.
- Ohe artikulatuak distantziarik mandoarekin.

Laskurain 11 • Tel.: 943 654 610
TOLOSA

kutxa



Lukas Lasa

“Urte batean Tolosara alde egin zigun zezenak, eta hango tren geltokian harrapatu genuen”

Amaia Goikoetxea

Festetan sardinak eta txori-zoak erretzen, suziriak botatzen, ume jolasak antolatzen (*“atzea umek, atzea!”* ezaguna egin da herrian), Gabonetako zuhaitza atontzen, erregeen kabalgatan... Hirurogei urte daramatza Lukas Lasak Alegian urtean zehar ospatzen diren hainbat eta hainbat ekitaldi antolatzen, gustuz, eta hirurogeita hemezortzi urte betetzera badoa ere, ahal duen bitartean horretan jarraituko duela dio.

Herriko festetan eskaini zizuten omenaldian hunkituta ikusi zintugun.

Hunkitzeko modukoa izan zen eta. Ez nuen espero eta sekulako ilusioa egin zidan: gazteek dantza egin zidatenean eta..., jota geratu nintzen. Orain hogeitau urte Alberto Gaztañaga aguazilari, German Intxausti txistulariari eta hiruroi egin ziguten omenaldia, eta orain beste bat... Oso hunkigarria izan zen, dantzariak, abesbatza... Emazteak serio egon nintzela esan zidan, eta halaxe izango zen, oso hunkituta bainengoan.

Hirurogei urte egin dituzu herriarentzat lanean. Nola hasi zinen?

Familian zerratzaileak ginen, eta herriko festetarako kioskoa guk egiten genuen. Ni artean gaztetxo nintzen, baina beti han ibiltzen nintzen saltsan. Kiosko txiki bat izaten zen, ez orain bezalakoa, baina orain baino denbora gehiago ematen zuten musikariek haren gainean: txistulariak zirela, trikitilariak zirela... Horrez gain, eskailera moduko bat ere muntatzen genuen plazan, jendeak musikariak eserita entzun zitzen; Aldaba Txikira joaten ginen, egurra bota, zerratu, eta oholekin egiten genuen eskailera hura. Hasieran kioskoa izan zen, gero suzirik esku bat botatzen hasi nintzen, aurrerago sardinen kontua bururatu zitzaidan...

Zurea al da, hortaz, jendearentzat sardinak erretzearen ideia?

Bai. Baina ez dut gogoan noiz hasitako kontua den. Etxean festetako programa ugari ditut gordeta, eta begira ibili naiz, baina ez dut aurkitu. Dena den, hogeita bost urte inguru izango dituela esango nuke.

Festetan makina bat urtetan aterra duzue goizean zezena, orain gutxira arte gainera...

Goizeko 7.30ean diana izaten zen, eta segituan zezena. Garai batean guk erosten genuen gainera, eta gero zozketatu, edo zenbaitetan saldu ere bai. Batean Tolosara alde egin zigun eta hango tren geltokian harrapatu genuen. Oso polita izaten zen. Azken urteetan, ordea, ez da egin. Oso garesti ateratzen zen, aseguru zezena bera baino gehiago kostatzen zitzaigun; gainera, ertzainak etortzen ziren, albaitariak, inspektorea... Lan asko zuen, zezena bera ekartzeak baino lan gehiago ematen zuen gainerako guztiak. Garai batean ez zen horrelakorik, zezena sokarekin lotzen genuen eta kito. Ez zen aseguru ordaintzen, eta zezenak jendea harrapatzen zuen baina ezer larririk ez zen gertatzen. Orain jende gutxiago ibiltzen da zezenetan, eta ibiltzen direnak gaizki, edanda.

Hirugogei urtetan zehar festak antolatzeko modua ere aldatuko zen, ezta?

Izugarri. Lehen segituan antolatzen zen festa, ezerekin beharrik gabe. Pentsa, pilotan ere ibiltzen ginen pilotarik gabe, itxura eginenez, belaunak urratzeraino. Plazan bildu eta berehala egiten zen festa sortzeko behar zena, tita, ez ginen orain bezala besteak zer egingo duen begira egoten. Denek egiten zuten zerbaite. Eta gero, zahagiardoan harrapatzen ziren mozkorak, bizkarretik helduta etxera eraman behar izatearaino batzuetan, eta muturra berrotutakoan borrokaren bat edo beste ere... Ehun lagun inguru elkartuko ziren garai hartan zahagiardoan. Betidanik ezagutu izan dut ohitura hori, ni hastera-



“Hunkitzeko modukoa izan zen omenaldia. Ez nuen espero eta sekulako ilusioa egin zidan.”

ko jada egiten zen. Seguru asko, hemendik hamar edo hamabost urtera sekulako aldea nabaritu du jendeak festak egiteko moduan, baina guk ere izugarria ikusi dugu, eta ez hirurogei urteko epean; azken hamar urteetan ere asko aldatu da kontua. Esaterako, gaur egun gazteak ikus ditzakezu plastikozko poltsetan edariak hartuta; nola ez, bada, tabernetan edariengatik kobratzen dutenarekin!

Borrokak aipatu dituzu.

Bai, eta hori aitortu beharra dago: lehen orain baino askoz borroka gehiago ikusten zen. Guardia Zibila noiznahi etortzen zen. Garai batean herrian bihurrikeriaren bat egiten zuenak jokoan parte har zezaten, eta hala ere ez ziren etorri. Zinta-karrera ere utzi egin nuen, ateratako zintak saririk ez bazuen lurrera botatzen baitzuten

go, eskanadaloa eskandaloren atzetik ibiltzen zena, eta jai arratsaldeetan 3etatik 10etara udaletxeko salan egoten zen zigortuta; jaiero joaten zen hara, isil-isilik, inork ezer esan beharrik izan gabe.

Ume jolasak antolatzen ere betidanik ezagutu zaitugu.

Berrogeita hamar urtetik gora izango dira jokoekin hasi ginetik. Orain, ordea, umeak ez dira jolasetara etortzen, goxokiak hartzera bakarrik agertzen dira. Jada ez dakizu zer asmatu. Aurten zortzina pakete goxoki agindu nizkien zenbait umeri, begiak itxita txokolatea jateko jokoan parte har zezaten, eta hala ere ez ziren etorri. Zinta-karrera ere utzi egin nuen, ateratako zintak saririk ez bazuen lurrera botatzen baitzuten



“Lehen ume asko etortzen zen jolasetara, eta hiruzpalau orduko saioak egiten genituen. Orain, berriz, labur-labur egin behar da, goxokiak eman, eta kito.”

umeek, etxerako gorde ere egin gabe. Goilara batean aurraultza hartuta lasterka ere ez du inork atera nahi, umeak bilatu ezinik ibiltzen gara. Izugarri aldatu da hori. Lehen ume asko etortzen zen jolasetara, eta hiruzpalau orduko saioak egiten genituen. Orain, berriz, labur-labur egin behar da, goxokiak eman, eta kito. Orain umeek dirua dute, eta nire ustez horregatik ez dira lehen bezala etortzen. Garai batean gosea genuen eta beharko joan. Baina orain dirua dute eta horrekin erosten dute.

Zure ‘bonba japonesak’ fama-tuak ziren...

Bai... Galarazi egin zituztela esan zuten, arriskutsua zela jendea erre zitekeelako, eta orain bi urte utzi behar izan nituen. Sekulako arrakasta zuten. Urte

asko egin ditut ‘bonba japonese-kin’.

Baina erregeen kabalgatan antortxeekin ateratzeko umeak izango dituzue oraindik, ezta?

Lehen behintzat bat baino gehiago geratzen zen sekulako disgustuarekin antortzarik gabe... Horretarako ere umeak ezin bildurik ibiltzen naiz. Lehen arratsaldeko 5etarako udaletxe atarian errenkan jarrita zai egoten ziren, antortzarik gabe ez geratzeko. Orain koadrila bakoi-tzari bi kilo karamelo jartzen dizkiot, eta hala ere ezinean. Festa denok egin behar dugu, eta jenderik bildu ezin baduzu ezin da festarik egin. Lehen makina bat ume joaten zen negarrez etxera antortzarik gabe gelditu zelako. Orain, berriz, ezinean gabiltz.

Aurten antortxa gutxi batzuk soberan geratu zaizkit baina ez gehiegi; iaz askoz okerrago ibili ginen. Inork ez du atera nahi. Gaur dena dute umeek; lehen ilusioa bazuten goxoki batzuk -edo hartzeko... Gaur inork ez ditu airean botatako karameloak hartzen, eskura emanda agian baina...

Hau guztia gustuz egiten duzu; izan ere, arotza zara ofizioz.

Hamalau urte nituela ikazkin ibili nintzen Donostian, osaba bati laguntzen. Gero, harakin aritu nintzen hemezortzi urtera arte, baina aspertu egin nintzen. Izan ere, estraperlo handia zegoen garai hartan eta txekorrak -eta harategietara ekartzen ibili behar izaten genuen. Bizpahiru aldiz harrapatu ninduten, epaitegira eraman..., gero isuna nagusiak ordaintzen zuen baina... Eta haren ostean etxeko taile-rreran hasi nintzen. Gu zerratzai-leak ginen, ez arotzak, hasieran behintzat. Mendira joaten ginen, basoak bota, egurra ekarri, zerratu, saldu... Anaietako bat kanpoan aritu zen lanean, arotzaren ofizioa ikasi zuen, eta hark irakatsi zigun beste anai bati eta niri; hirurok arotz has-tea erabaki genuen.

Festetan nork ematen du lan gehiago, helduek ala umeek?

Helduek askoz lan gehiago ematen dute. Umeekin ere batzuetan ernegatzen zara, geldirik egoteko esan, eta ezer ez... Baina helduekin... Azken urteetan sardina eta txorizoak erre ditugunean bat baino gehiago pintxoak binaka eta hirunaka hartzen ibili da, indarka, pintxoak lurrera botatz... Horrela ibiltzerik ez dago. Gauza bat da pintxo hartu, sagardo esan... hori polita da. Baina ahalik eta gehien hartu nahian ibiltzea... Askotan amorratu egiten zara, baina pasa egin behar duzu. Abenduan gaztainak erretzen ditugunean ere, zer komeriak! Zenbaitek kolkoan gordetzen ditu hartutako gaztainak, eta gehiagoren bila etortzen da, aurretik hartu ez balitu bezala... Urteren batean kobratzen hasi beharko dugu, ea orduan zenbat jende etortzen den!

Arotza izanda, lehen aipaturiko guztia egiteko denbora ateratzea ez zen, bada, erraza izango...

Makina bat errieta izan dut etxean horregatik, ene! Baina nik gustuz egiten dut. Ez dut sekula udalarekin inolako konpromisorik izan, nahi dudalako egiten dut. Makina bat ume pasako zen nire eskuetatik, eta seguru asko behin baino gehiagotan builaka ere ibiliko nituen, baina gustatu egiten zait lan horiek egitea. Oraindik ere horretan jarraitzen dut; kioskoa beraiek muntatzen dute, baina

Hemendik hamar edo hamabost urtera sekulako alde nabarrituko du jendeak festak egiteko moduan, baina guk ere izugarria ikusi dugu, eta ez hirurogei urteko epean; azken hamar urteetan ere asko aldatu da kontua.

gainontzekoan, bai. Hirurogeita hemezortzi urte egitera noa. Ondo nago, pixka bat zaindu behar dut, baina ondo. Iazko otsailean utzi nion tailerrera egunero joateari; orain noizean behin ilobari laguntzera joaten naiz hara. Eta gainontzean baratzetan aritzen naiz.

Irakurlearen begietatik



Jone Gorostazu
Irakurlea

Jon Arretxe, Xahmaran

Kawa da nobela honetako protagonista, Istambulen bizi den mutil gaztea. Kurdua da, eta amak izen hori jarri zion kurduen leiendan hala izena baitzuen herriaren laguntzaz Zohak errege haragijalea hil eta kurduak esklabutzatik salbatu zituen errementariak. Kawaren amak, izan ere, larritik bizitu izan du kurduen borroka nazionalista; horretan galdu zituen bere senarra eta bi seme gerrilariak, eta errepresioak bera ere gurrildun aulkian elbarri utzi zuen. Hori dela eta, emakumeak inoiz ez ditu bere sustraiak ahaztuko, eta beti eskatuko dio semeari oroitzeko nondik datorren eta jarraitzeko aitaren eredia.

Amaren idealismotik nahiko urrun ibili ohi da Kawa, ordea; hiltzaile profesionala da. Hoztasunez bai-

na, aldi berean, halako pasio arraro batez hiltzen ditu bere biktimak dirua irabazteko. Bihozgabe edo krudel irudia eman dezaken arren, gero bere amarekin maitakor eta errukitsua da protagonista, eta irabazitako diru apurra honi opariak egiten xahutzen du; gereziak, gozoak...noiz-bait, baina, semeak amari oparirik onena egin nahi dio; Istambul utzi eta jaioterrira, Ararat mendipeko Dogubayazitera itzultzea.

Egun batean besteak bezalakoa zirudien hilketa batek gauza guztiak aldrebestuko dizkio Kawari, eta bat batean bere patuak irtenbiderik gabeko noranzkoan jarriko du. Orduan Istambul utzi eta Munichera joan beharrean aurreratu da, han baitauzka bere anaia eta arreba ere, nola edo hala bizimodua atera nahirik.

Asia erdialdean bada suge formako izaki mitologiko bat, bi buru dituena; sugarena bata, eta emakumearena, bestea. Kurdistango emakumeek askotan izaten dituzte izaki honen irudiak beren logeletan, ugalkortasunarekin eta zoriona ekartzearekin lotzen baita, besteak beste, Xahmaran. Izenburu honen pean, gaurkoan, nobela beltz bat dakarkigu Jon Arretxek. Bertan ez dira faltako hilketak, biolentzia, leku ilun eta itogarriak, auzune txiroak eta ustelkeria.

Munichen ere gauzak ez zaizkio nahi bezala irtengo mutilari, eta bere ingurua bat batean nola deseraikitzen den ohartuko da; bakarrik sentituko da, alde guztietatik desengainatua, traizionatua, eta inorekin ezin dela fidatu konturatuko da, amarekin ez bada.

Nobela irakurterraza eta atsegina da Arretxek lortu duena; bere bidaia liburuen ildoari jarraituz, maisutasunez eramaten gaitu munduko txokoetan barrena bidaian. Istambuleko kaleetara, bere te etxe, hamman eta meskitekin, eta baita Munichera ere, bere metroko isiltasun itogarriekin, ikusten ez zaituzten begiekin. Liburuan zehar, gainera, egungo gizartearen hainbat miseria azaleratzen eta salatzen dira, hala nola pobrezia, xenofobia edota

emakumearen papera, baita prostituzioa eta poliziaren ustelkeriak ere. Eta, batez ere, liburuak kontrastea bilatzen du; kontrastea bihozgabetasuna eta maitasunaren artean, kontrastea konfidantza eta traizioaren artean, eta, azken batean, kontrastea elkarrekin dantzaten duten heriotza eta bizitzaren artean.



Sormenaren suak indartsu jarraitzen du

2008an hasi ziren sormenaren piromanoak sua zabaltzen. Lehenengo Bonberenea Sutan jaialdi hartatik bi urte igaro direnean, etxe okupatua eraisteko mehatxuaren aurrean ilusioaren garrak bizirik dirauela erakutsi nahi dute. Autogestio ereduaren aldeko atxikimendua eman duten ehunka lagunek suari egur gehiago bota diote; eta su indartsu horren babesean bigarren Bonberenea Sutan jaialdia antolatu dute irailaren 11 rako.

Leire Zubeldia

"Bonberenearen birkokapenaren negoziazioa martxan dago. Guk, etxe honetatik ateratzeko baldintzak zeintzuk diren zehaztu genizkion udalari. Bonberenea Sutan jarritako baldintza horiei eta etxearen birkokapenari sustengua ematera dator". 2008ko irailaren 5an kaleratutako Galtzaundi aldizkarian egin zituen adierazpenok Bonbereneako bozeramaleak. Orduko hartan, San Esteban auzoko proiektu urbanistikoa eta etxe autogestionatua, bi gauzak nola integratu zitezkeen hitz egiten ari ziren Udala eta Bonberenea. Bi urteko epean gauza ugari gertatu dira:

San Esteban-Laskorain Goiakoa eremuko hirigintza plan bereziari argi berdea eman dio Tolosako Udalak. Plan honen baitan 1.000 etxebizitza berri eraikiko dira, egun San Esteban auzoko iparraldean kokaturik dauden eraikin industrialak Ferialekua eta Bonberenea bera ere eraitsiz. Etxebizitza kopuru horrekin batera, Ferialekuaren funtzioak beteko dituen pabiloi balioanizta eta Bonberenearen egoitza berria eraikiko dituzte, egungo gune berdeak mantenduz eta berri gehiago

sortuz. Baina San Esteban bizigune berria Bonbereneari emango zaion tratamendua ez da bertako kideen gustukoa. Lehenik eta behin, Bonbereneako bozeramaleak prentsa bidez salatu zuenaren arabera, "harriturik" daude udalak emandako tratua erekin: "prentsa bidez jakin zuten berria, ez zen baldintzen negoziatzen egon, eta gainera ez diete beraien etorkizunaren gainean erabakitzen utzi". Guzti honetatik haratago ordea, ez daude ados Udalak Bonberenea berrirentzako egiten duen planteamendua erekin. Proiektu berriak ez du ahalbidetzen hamabi urteko historian Bonberenearen bereizgarria izan den autogestio ereduarekin jarraitzea.

Autogestioa edo ezer ez

Esan daiteke, urte guzti hauetan autogestioa izan dela Bonberenearen motorra. Etxe okupatuaren interneteko atarian zintzilikatu duten testuan irakurri daitekeen moduan, "Bonberenea lan sozial garrantzitsua betetzera bultzatu duen eredu" da autogestioa: eredu honen bidez, diskoak eta liburuak kaleratzeaz gain, urte osoko eskaintza kultura-

la egin dute gaur arte. Gestio era honek ez du onartzen "mugimenduaren kanpotik datorren esku-hartzerik", eta arrazoi horregatik, "Bonbereneak ez du inoiz instituzio publikoetako diru-laguntzarik jaso". Hau honela izanik, Udalak eraikitako Bonberenea berriak ez luke zentzurik, "azpiegituraren jabe bezala, mugimenduaren barneko erabakietan parte hartzeko boterea izango lukeelako", era honetan autogestioaren erreferentearekin amaituz.

"Zergatik planteatzen da auzoaren etorkizuna bizilagunek eta Bonbereneak planteatzen duenari bizkar emanetz? Zergatik inposatzen zaio antolakuntza eredu bat mugimendu kultural honi? Zergatik aldatu behar da erreferente bat ondo funtzionatzen duenari? Galdera ugari sortzen dizkie Bonbereneako kideei Udalak etxe okupatuentzat margotu duen etorkizunak. Horrenbeste ahalegin eta ilusioarekin eraikitako proiektuak bere horretan jarraitzeko alternatiba bakarra auzo berriaren egungo etxea mantentzea dela iritzi diote Bonbereneako kideek. Beraien aburuz, etxe okupatua eta bizigune



berria bateragarriak dira. Era honetan, San Esteban bizigune berriko proiektua gauzatu behar duten enpresei euren talentua erakutsi eta egungo etxeak auzo berrian jarraitzeko modua aurkitzeko gonbita luzatu die.

Irailak 11, sua zabaltzen

Bonbereneak bere etorkizuna erabakitzearen alde eta autogestioaren defentsan indar guztiak bilduko dituzte.

San Estebango etxean ohiakoa duten moduan musikaren bidez egingo dute indar erakustaldia. Futbol zelaian, Sixty Sexers, Doctor Deseo, Ama Say, Atom Rhumba eta Anari-ren kontzertuak izango dira gaueko 21:00etan hasita. Ateen irekiera berriz 19:00etan egingo da. Ordu horretatik aurrera sormenaren suhiltzaleen aurrean, sua zabaltzen jarraituko dute piromanoeak.

ALDATZ Kristaldegia

Mota guztiako beirak
Bainu eta dekoraziorako
ispiluak
Beirate artistikoak
Dubxa-itxurak

Tel./Faxa: 943 674 845
kristaldatz@euskalnet.net
Pablo Gorosabel, 33 • TOLOSA




Saldias Miguel

CORREDURIA DE SEGUROS
ASEGURUETAKO ARTEKARITZA

N. D.G.S. J.1759

Bizi-aseguruak
Kotxe-aseguruak
Istripuak
Gaisotasunak
Ospitalizazioak
Subsidioak
Lan-istripuak
Enpresa txiki eta ertainak
Erantzukizun zibila
Etxe-aseguruak
Denda-aseguruak
Erretiroak
Inbertsio fondoak

SALDIAS MIGUEL - Nafarroa Etorbidea, 12-behea
Tel.: 943 651 189 - 943 653 462
Faxa: 943 653 462 - 20400 Tolosa (Gipuzkoa)
www.saldias-miguel.com



Tolosa Bit
Informakika Zerbitzuak
Ondaragailuak eta konputatzaileak
Erretiro eta pertsonalitateko
Materialak

Oria kalea, 14-behea
Tolosa - Tel.: 943 676 156
Faxa: 943 016 857
tolosabit@facilnet.net
www.tolosabit.es

Ugaitz Mendizabal "Kontxa beste estropada bat bezala ikusten dut"

Hondarribiko banderaren biharamunean egin dugu zita Ugaitz Mendizabalekin. Igandeko estropada etxetik gertu tokatzen denean, Anoetan igarotzen du astelehena Astilleroko patroiak. Batelean, trainerillan zein traineruan, garaipenik handienak bere eskutik lortu ditu Kantabriako klubak. Espainiako Txapelketen tamainako garaipenak lortu dituen patroirik gazteena da Ugaitz. 19 urte ditu TAKEk pulitutako harribitxiak. Merezi bai, baina ez daki Kontxan San Jose ontzia gidatzeko aukera izango duen. Hala bada lasai irtengo dela ziurtatu du; eta ez bada, ikasten jarritu nahi du.

Leire Zubeldia

Zer moduzkoa izan da arraunen maila gorenean egin duzun lehen urte hau?

Nik uste baino askoz ere hobea. Hasieran proba egin ondoren, Jon Salsamendi entrenatzaileak aukera bat eman-go zidala esan zidan eta banku mugikorreko zortzikoan sartu ninduen. Espainiako txapelketa irabazi genuen. Trainerillan ere probatu egin nahi ninduen: Santanderreko estropada batean ontziratu nintzen eta irabazi egin genuen. Portugaleten ACTko estropadan ere berriz eman zidan aukera eta hemen ere garaipena erdietsi genuen. Ezin hobeto, beraz.

Iazko azaroan jaso zenuen Jon Salsamendiren deia. Nola hartu zenuen proposamena?

Nik klub handi batera joan

nahi nuen. Tolosako entrenatzaileak esan zidan Astillerora joateko aukera nuela. Orduan lanik gabe nengoen. Ez nuen bi aldiz pentsatu.

ACT zuk uste zenuen bezalako da?

Niri luzea egin zait. Azarotik ari gara entrenatzen, baina dena hiru hilabetetan jokatzen da. Ez bazara hasieratik gogor hasten atzean geratzen zara.

Nola azalduko zenuke TAK bezalako klub baten eta Astilleroren mailako talde baten artean dagoen diferentzia?

Maila gorenean denboraldia luzeagoa da. Bestalde, ACTko klubetan profesionaltasuna nabaritzen da. Entrenamenduei ezin zaie izkin egin. Serio

Entrenamendu guztiak lehenengo balira bezala egiten ditut. Garaipena momentuan balio dute soilik.

aritzen gara denok entrenatzen. Egunero-egunero, goiz eta arratsalde izaten dira saioak. Hori da batetik bestera dagoen salto handiena.

Banku mugikorrean uretaratu, eta irabazi; batelean berdin; trainerillan ere bide bereetik ibili zara. Garaipen guzti horiek konfidantza eman al zizuten traineruan lemazain jartzeko?

Batela eta trainerilla oso ontxi txikiak dira traineruaren aldean. Traineruan inoiz ez nintzen ibili. Oso ezberdina da. Haizeak trainerua errazago mugitzen du. Azkarra izan behar duzu, eta begi zorrotzarekin jokatu.

Eskerrak ez zinen lehenagotik traineruan aritu. Astillerok traineruan irabazitako bi banderak zu patroiz zinela irabazi dituzte...

Tira, pisu gutxi daukat, eta bi estropadetan egokitu zitzaigun kalearengatik irabazteko aukera genuen. Aprobe-txatu egin genuen. Horrek ez du esan nahi kalearengatik irabazi genuenik. Kaleak ematen dituen aukerak baliatzen ere jakin behar da.

Garaipen hauek zertarako balio dizute zuri?

Aurrera jarraitzeko balio dinate. Irabazita ere lanean jarraitu behar duzu. Entrenamendu guztiak lehenengoak balira bezala egiten ditut. Garaipenek momentuan balio dute. Bateletan eta trainerilletan Espainiako txapelketa irabazi genuen, baina orain ez da garaipen horietaz gogoratzen.

Lorpen hauek klubeko arduradunek zugan konfidantza izan dezaten ere lagunduko zuten...

Bai. Hala ere, beraiek badakite aukerak eman behar dizkidatela pixkanaka eskua hartzen joateko. Orain arte errekan aritu naiz gehien bat. Itsasoan ere ongi aritzen naizenean lortuko dut erabateko konfidantza.

Zein ezaugarri behar dira patroian bat izateko?

Psikologo moduko bat izan behar duzu. Arraunlariak topera joaten dira, indarrak agortuta. Animatu egin behar dituzu, pentsamendu positiboa sustatu. Bestetik, azkarra izan behar duzu, haizea baliatzen jakin.

Patroiak arraunlarien prestaketa bera egin behar al du?

Beste era bateko prestaketa egiten dugu. Batel eta trainerilla denboraldian gogorrago entrenatzen nuen sasoi puntua eskuratzeko. Korrika egitera joaten nintzen goiz eta arratsalde, gehien bat pisua

jaitsi edo mantentzeko. Orain 55 kilotan nago. Pisu hori mantenduz, gimnasioko saioak egiten ditut.

Cristian Garmak, Astilleroko beste patroiak itzal handia egiten al dizu?

Bera da lehenengo patroia. Asko lagundu dit. Oso gustura nago. Nik zazpi estropada egin ditut, berak bederatz. Kontxa berak egingo duela uste dut. Merezita dauka.

San Migel ligan 6. postuan zaudete. Hemendik denboraldi amaierara arte, zein helburu ditu Astillerok?

San Migel ligan gero eta gorago geratu orduan eta hobeto. Baina, egia esan, bosgarren edo laugarren postuan amaitu, jendeak garrantzia bera eman-go dio. Batez ere Kontxako bandera daukagu begiz jota. Azken estropadarako sailkatu nahi dugu; hori gutxienez.

Eta zure helburura?

Ikasten jarraitzea. Eta datorren urtean Astilleron geratzeko aukera badut hobeto.

Kontxan ziurrenik Cristian aterako dela diozu. Zu ateratzeko aukeraren bat ikusiko duzu ordea...

Bai. Itsasoa lasai badago aukera izan dezaket. Izan ere, Cristianek baino 10 kilo gutxiago pisatzen dut. Atera behar bada aterako naiz, baina lasai. Jendeari iruditzen zaio Kontxa berezia dela. Egia da proba

esanguratsua dela, baina nik beste estropada bat bezala ikusten dut.

Asteazkenean Astilleron bizi zara eta asteburuetan estropadatik estropadara ibiltzea egokitzen zaizu; etxetik urrun beti. Nola daramazu hori?

Hasieran etxera itzultzeko gogo gehiago izaten nuen, baina pixkanaka ohitzen joan naiz. Astilleron ez dago gauza handirik, herri txikia da. Santander gertu dugu ordea; eskapatatxoak egiten ditugu.


Datorren urteari begira, zer gustatuko litzazuke?

Entrenatzaileak nahi badu Astilleron jarraitzea gustatuko litzaidake, batez ere taldekideekin konfidantza lortu dudalako. Beste talde batera joatea egokitzen bazait ere gustura. Argi dudana gauza bakarra arraunean jarraitu nahi dudala da. Oso

urte ona izan da. Entrenatzaileak dioenez, Astillerok azkeneko urteetan egin duen denboraldirik onena burutu dugu. Kontxan sailkatzen bagara oso urte ona izango da.

Eta sharea? Jarraitzen al duzu?

Dena ezin da. Utzi egin behar izan dut.




Juan Larrazpu
eraikuntzak, s.l.

• Baserrietako igeltsaritza eta egurrezko estrukturan adituak.

• Etxeen berrikuntzak: Fatxadak - Teilatuak - Sukaldeak - Baiñu gelak, etab...

Tfnoa: 665 718 966
Jon Arruti (Orio)



Etxebarru zein kalerako lorak.

Lorategi lanabesak.

Lora legor eta apaindura tresnak.

Santa Luzia Auzoa, 1 -
Tel.: 943 673 118 Tolosa

shanti
kirolak

Rondilla, 11 bis
Tel.: 943 674 074
Tolosa

Muxutruk

Lana

• Ordenagailuak konpondu eta eguneratu ditut, datuen berreskurapenak merke eta etxerako zerbitzua. 644 453 621

Etxebizitza

• Etxebizitza salgai Izaskun auzoan. 60 m². 2 logela, sala, sukaldea eta komuna-ekin. 645 718 536

• 60m²-ko pisua salgai Berazubín. Egon-gela handia, bi logela, sukaldea eta komuna. Berritua, berogailua, sartzeko prest. 616 278 843

• "Orion pisu/apartamentua salgai, garaje eta guzti, zentruan. Hondartzatik 10 minutura. Harremanetarako telefonoa: 661304125"

• Etxebizitza abuhardilalatu salgai Montezkue auzoan. Bi logela, sala, sukaldea eta komuna. Kalefakzioa badu. Eguzkitua eta bista onak. 685.765.855

• Pisu edo apartamentu baten bila nabil alokairuan hartzeko. Tolosan edo inguruan. 656.744.115

Salgai

• Spaniel txakur kumea salgai 678 923 512

• Igini markako akordeoia saltzen da. Tamainaz ertaina eta beltza. Berau eramateko gurditxo opari. Telefonoak: 943.65.13.45 - 663.621.800

• Txekor idixko limosina zezenatarako salgai. 943.69.32.18 / 618.185.337



aries

Martxoak 21-Apirilak 21
Arazoetan ito edo hauei gaina hartzea jarrera kontua izaten da gehienetan. Egun hauetan, aldarte onean ibiliko zara, alai eta pozik. Ez da egongo bidean oztopatuko dizun arazorik. Eutsi horri.



taurus

Apirilak 22-Maiatzak 21
Borrokari ibiliko zara zure buruarekin. Izan ere, norbere kontraesanak agerian geratzen direnean inor ez da ongi sentitzen. Zaila da koerentea izatea, baina gutxienez ez besteak juzgatu ez direlako.



gemini

Maiatzak 22-Ekainak 21
Gogorra egiten ari zaizu lanerako itzulera. Dena den, zure opor osteko depresioa ez al da luzeegia izaten ari. Agian arazoa ez da nagi zabiltzala; pentsatu al duzu zure lana gustatzen ote zaizun?



cancer

Ekainak 22-Uztailak 22
Udan denbora asko eman duzue elkarrekin. Hemendik aurrera ordea gutxitan ikusi ahal izango duzue elkar. Egoera berriak ez du harremana hoztuko, baldin eta duzuen denbora ondo antolatzen baduzue.



leo

Uztailak 23-Abuztuak 22
Gogaituta ibiliko da zure ume jarrera horregatik; ume jarrera baita oporretan ibili, etxera itzuli eta hala ere gehiago nahi duzula eta kezuka ibiltzea. Jarrera horrek arazoak ekarriko dizkizu.



virgo

Abuztuak 23-Irailak 22
Oporretan hainbat arazo pilatu zaizkizu eta orain horiek denak konpontzea egokitu zaizu. Eskerrak oporretatik pilak karga-karga eginda etorri zaren. Kementsu ibiliko zara, eta dena bere bidean jartzen jakingo duzu.



libra

Irailak 23-Urriak 22
Ikasturte berriak aldaketak ekarriko ditu zure bizitzara, eta ez nolana-hikoak gainera! Erraz ohituko zara egoera berrira. Denbora ongi antolatu eta eguna beteta izatea da gakoa.



scorpius

Urriak 23-Azaroak 22
Arazo bat dela medio abokatu bila hasi beharko duzu aste hauetan. Dena den ez da konpondu ezin daitekeen ezer izango. Zure bikotearekin inoiz baino hobeto egongo zara. Oporretako eztiak luze iraungo du.



sagittarius

Azaroak 23-Abenduak 21
Dirusari bat jasoko duzu; baliteke urruneko pertsona baten herentzia izatea. Ez da asko izango, baina ongi etorriko zaizu etxean dituzun matxura horiek konpontzeko. Okerrera egin dezakete eta esperoa garesti aterako zaizu bestela.



capricornius

Martxoak 21-Apirilak 21
Izua ematen dizu ispiluari begiratzek. Udaran kirol pila bat egin behar zenuen eta hara! Kiloak besterik ez dituzu hartu. Eman izena gimnasioan edo bestalako kirol ekintzaren batean. Janari garbiak ere lagunduko dizu.



aquarius

Urtarrilak 21-Otsailak 20
Hurrengo asteetan ezusteko bidaia bat suertatuko zaizu. Zure eguneroko martxan kaosa eragin badezake ere, aprobetxatu egin beharko zenuke, ez baituzu denbora puxka batean horrelako aukerarik izango.



piscis

Martxoak 21-Apirilak 21
Harreman sozialetan bereziki fin ibiliko zara. Kafeak hartzeko eskaintza asko jasoko dituzu lagun ezberdinen-gandik. Ez daukate ezkutuko interesik, zure konpainia da interesatzen zaiena. Kontuz, bizitza sozialak ere estresatu egin dezake!

Horoskopoa

Irailaren 3tik 17ra arteko aurreikuspena

MAILA GUZTIAK
AURREZ AURREKO TALDEAK
AUTOIKASKUNTZA
TITULU HOMOLOGATUAK

Aitzol
Udal
Euskaltegia

Irailaren 17 arte
bulego ordutegia
09:00 - 13:00 / 16:00 - 19:00




Rondilla 34-B, 3.a
20400 TOLOSA

tel. 943651006 - 943652343

www.udaleuskaltegiak.net

aitzolue@tolosakoudala.net



Komikia: Joseba Antxustegietxarte



FUNERARIA VASCONGADA EHORZKETAK

TOLOSAKO TANATORIOA



urteaurrena